

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

**NEREA URIEN AZPITARTE ANDREAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HONAKO HAU**

**ZIURTATZEN DU:**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2020ko apirilaren 17an eginiko ezohiko bileran (3/20 akta), besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, batzordeburuaren proposamenez:

**SANTURTZIKO ASISTENTZIA-ZENTROA UNITATE SOZIOSANITARIO GISA ZABALTZEKO, ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN ETA COVID-19AN POSITIBO EMAN DUTEN PERTSONENTZAT, OSPITALEKO ALTA JASO ONDOREN ETXERA ITZUL EZIN DIRENERAKO.**

«**Lehenengoa.**» Santurtziko asistentzia-zentroa unitate soziosanitario gisa zabaltze udalerrri horretako Itsastarren Etxea izeneko eraikinean, zaurgarritasun-egoeran dauden eta COVID-19an positibo eman duten pertsonentzat, ospitaleko alta jaso ondoren etxera itzuli ezin direnerako.

**Bigarrena.**» Zentro berriaren erabiltzaileen ezaugarriak eta sarbide-profilak eranskin gisa erantsi den dokumentuan deskribatzen dira.

**Hirugarrena.**» Aipatutako zentroko plantilla osatu behar duten langileak zeregin-pilaketako formularen bidez kontratatuko dira, egoerari dagokion aurrekontu-plantilla eratu arte. Lehenagoko Santurtziko Itsastarren Etxean lanpostua zuten langileak lanpostuz aldatu ahal izango dira gerentearen ebazpen arrazoitu baten bidez.

**Laugarrena.**» Interesdunei jakinaraztea hala erabaki hau nola haren aurreko txostena, zeina arrazoibide gisa gehitzen zaion erabakiari, eta adieraztea ezen, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginean xedatutakoarekin bat, demanda aurkez dezaketela beronen kontra, lan-arloko epaitegian, jakinarazpena jaso eta hurrengo bi hilabeteetan. Horrez gainera, egokitzat jotzen duten beste edozein ekintza erabili ahal izango dute.

**Bosgarrena.**» Gerente andreari ahalmena ematea erabaki hau behar bezala betearazteko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan eta, bereziki, zentroko karteldegia eta lanaldiak ezartzeko direnak.

**Seigarrena.**» Erabaki honen berri ematea Gizarte Ekintza Saileko Zentroen Erregistroari, Lan eta Justizia Sailaren mendeko lan-agintaritzari, Osasun Saileko osasun-arloko agintariei eta Mutualia erakundeari, mota honetako lan-zentro berri bat dagoela jasota gera dadin.

**Zazpigarrena.**» Erabaki hau helaraztea Dibisio eta Departamentuetako buruei eta Erakundeko ordezkariak sozialari.



**Zortzigarrena**.- Erabaki honek beherago adierazitako egunean bertan sortuko ditu ondorioak, GUFEn iragarki-oholean, web-orrian eta intranetean argitaratzen den eguna gorabehera.»

Eta jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten da, Bilbon, bi mila eta hogeiko apirilaren hamazazpian.

GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO  
IDAZKARIA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte

A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping loops and a long tail, positioned over the printed name.